



2013KO URRIAREN 31KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko urriaren hogeita hamaikan, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Andoitz Garmendia Zubeldia eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten dira 2013ko irailaren 26an egindako ohiko eta 2013ko urriaren 4an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia atera egiten da aretotik.

III.- ITURGAITZAGAKO BIRIBILGUNE LANEN AZKEN OBRA EGIAZTAGIRIA.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen obra zuzendaritza daraman IKAUR, S.L.-ko Miguel Salaberria ingeniariak lanen azken obra-egiaztagiria (11.a) luzatu du. Lanen azken obra-egiaztagiri honen zenbatekoa BERREHUN ETA LAUROGEITA ZAZPI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMASEI EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMOTAKO (287.136,91 €) da. Lan hauek GORAIIKI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, eta obra honen finantzaketa dela eta, azaldutako zalantzen inguruko argibideak eman ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen azken obra-egiaztagiria (11.a) onartzea erabakitzen du.



IV.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNE LANEN 10. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 10. obra-egiaztagiria luzatu dute. Lanen 10. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa BERROGEITA HAMABOST MILA EHUN ETA LAUROGEITA HAMAR EURO ETA LAUROGEITA HAMABOST ZENTIMOTakoa (55.190,95 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 10. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretora itzuli egiten da.

V.- LAZKAO LANTZEN S.A.RI MAILEGUAK.-

Lazkaoko Udalak mailegu eragiketa bat izenpetu du Banco SabadellGuipuzcoano banketxearekin. Mailegu honen helburua Lazkao Lantzen S.A.k Iturgaitzaga hirigintza eremuaren garapena aurrera eramateko behar duen finantzaketa lortzea da eta mailegua Lazkao Lantzen S.A.k kontratu beharrean Lazkaoko Udalak kontratatu izanaren arrazoa, mailegua baldintza hobeetan lortzearena izan da.

Lazkaoko Udalak Banco SabadellGuipuzcoano banketxearekin izenpetutako maileguaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Maileguaren zenbatekoa: 1.250.000€
- Maileguaren irekitze komisioa 3.125€
- Amortizazio epea: 3,5 + gabealdiko epea: 1,5 = guztira 5 urte
- Interes tasa: EURIBOR + 4,00
- Ordaintzeko maiztasuna: Hiruhilabetekoa

Bestalde, Udalak berak Lazkao Lantzen S.A.ri mailegatzeko partida aurreikusita dauka bere aurrekontuan. Aurtengo aurrekontutik orain arte emandako diru zenbatekoak honako hauek izan dira:

- 2013ko apirilean	200.000€
- 2013ko ekainean	50.000€
- 2013ko uztailean	176.000€
- 2013ko urrian	310.580€

Hau guztia honela izanda, Lazkaoko Udala eta Lazkao Lantzen S.A.ren arteko mailegu eragiketa izenpetzea planteatzen da. Lazkaoko Udalak Lazkao Lantzen S.A.ri emandako mailegu honen baldintzak, Lazkaoko Udalak eta Banco SabadellGuipuzcoano banketxearen maileguaren baldintza berdinak izango lirateke.

Lazkaoko Udalak, Lazkao Lantzen S.A.ren beharren arabera eta honek egindako eskaerei erantzunez, emango dio dirua.



Lazkao Lantzen S.A.k maileguarengatik Lazkaoko Udalari ordaindu beharrekoa, honek Banco SabadellGuipuzcoanorekin daukan maileguaren baldintzen arabera ateratzen dena izango da.

Halaber, Banco SabadellGuipuzcoanoren mailegutik, erabili gabeko diruak kontu korrontean sortutako aldeko interesek Lazkao Lantzen S.A.ri emango zaizkio.

Guzti honen aurrean, eta Ogasun Batzordearen proposamenaren aurrean, osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Akordio honen aurrekinetan adierazitako baldintzetan Lazkao Lantzen S.A.rekin mailegu kontratua izenpetzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea udalaren izenean Lazkao Lantzen S.A.rekin mailegu hau izenpetzeko.

VI.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Ogasun Batzordearen presidentek ordenantza fiskalen inguruan proposatzen diren aldaketen azalpena egiten du. Esaten du Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, Hirilurren gaineko balio gehitzearen gaineko zergan eta Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko zergan ez dela aldaketarik planteatzen, nahiz eta Ondasun higiezinaren gaineko zergan, etxebizitzaren ohiko erabileraren gainkargua aplikatzerakoan salbuespenetan aldaketak planteatzen badira ere. Esaten du baita ere, orokorrean Kontsumo Prezioen gaineko Indizearen aldaketaren arabera aldaketak planteatzen direla, honetarako 2012ko abuztutik 2013ko abuzturako K.P.I.aren aldaketa hartu delarik oinarritzat, hau da, %1,9ko igoera. Esaten du baita ere uraren kasuan, eta Ur Kontsortzioak planteatzen duen igoera kontuan izanda, %1,5eko igoera planteatzen dela. Eta azkenik, udal zerga eta tasen ordainketarako laguntzen ordenantzan planteatzen diren aldeketen azalpena egiten du.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du beraiek abstenitu egingo direla eta abstentzio hau, batipat bi arrazoiengatik dela; bat, legealdia hasi zenetik eskatzen ari diren lehen tasunen azterketa ez delako egiten; eta bi, ekonomi gaiei aurre egiteko udal aurrekontuetako azterketa ez delako egiten, eta aipatzen du zabor bilketaren kostua bikoiztu egingo dela datuak badituztela eta hemen zaborren tasa ez dela ikutzen.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du abstenitu egingo dela, zeren kontentzio aldetik hainbat kontzeptu bere horretan uzteko zerbait egin baldin bada ere, ez dela nahikoa egin eta bestalde tasa hauek ez direla errealistak, zabor bilketarena kasu.

Alkateak (Bildu) esaten du aurrekotuko partiden inguruan proposamenak jasotzeko prest daudela eta bestalde kontentzio ahalegin hori ere egin dutela, baina jardueri laguntzeko eta, batzordean ez dutela inolako proposamenik jaso.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jarri eta osoko bilkurak, aldeko 6 botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta 5 abstentzioz (EAJ, PSE-EE), honako akordioak hartzen ditu:



1.- Bere espedientean jasotzen den dokumentazioaren areberako ordenantza fiskalen al-daketa, behin-behineko izaeraz onartzea.

2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.

3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akor-dioa behin betiko bihurtutzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

VII.- TAXIEN HIRI TARIFEN ALDAKETA.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2014 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behin-tzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIREn bidez izapidatu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarrereren azter-keta bidali dute baita ere.

Datorren urterako proposamenak zera aurrakusten du:

1.- Oraingo tarifak urtearteko 2012-2013 abuztutik abuztura bitarteko K.P.I.an igotzea, hau da %1,9 igotzea.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2013)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiasaria	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Abiasaria	Egindako ki-lometroa	Zai egindako ordua
3,3943	1,0626	20,2963	3,3943	1,6947	31,8992

Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- 2014 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA (2014)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiasaria	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Abiasaria	Egindako ki-lometroa	Zai egindako ordua
3,4588	1,0828	20,6819	3,4588	1,7269	32,5052



--	--	--	--	--	--

* Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.

** Tarifa hau egunero 22:00etatik 7:00etara, eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan, halaber larunbatetan 07:00etatik 22:00etara eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan aplikatuko da.

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

VIII.- IKURRIÑAREN ALDEKO MOZIOA.-

Lazkaoko EH Bilduk aurkeztutako mozioak honela dio:

"Espainiar Gobernuko Delegaritzak, etengabeko errekerimenduak egin ditu azken urtean, espainiar bandera udaletxeetan ezartzeko, baita Lazkaoko Udalari ere. Espainiar bandera jartzeko errekerimendua lehen aldiz iritsi zenetik, helegiteak aurkeztuz aurre egin zaio. Baina jada, bide juridikoa agortua dago, eta horrenbestez, azaroak 16 du Udalak epemuga, bandera espainiarra udaletxean jartzeko.

Euskal Herria nazio gisa aitortzen dugunontzat, gure ikurrak, eta bereziki ikurriña, gure herriaren existentzia, historia eta eskubideen eta askatasunaren sinboloa da. Horregatik, espainiar gobernuak, berebiziko garrantzia eman dio gai honi, eta lehentasunezkoa bihurtu du espainiar bandera derrigortzea Hego Euskal Herrian, nahiz eta badakien, gatazka eta talka sortzen dituen ikurra dela.

Ikurriñak, Euskal Herri osoa eta euskal gizartearen gehiengoa batzen duen bitartean, espainiar banderak, inposaketa, errepresioa eta erabakitzeke dugun eskubidearen ukazioa irudikatzen ditu.

Horregatik, nahitaezkoa iruditzen zaigu Lazkaoko Udalak, Ikurriñaren aldeko ekimenak martxan jartzea eta horretarako ondorengo puntuak onartzea:

- Arrotz sentitzen dugun espainiar bandera jartzearen derrigortasunaren aurrean, Lazkaoko herriaren aniztasuna aitortuz, lazkaotar diren jatorri ezberdinetako herritarren nazioetako banderak ipintzea.
- Geure Ikurriña dela aitortuz, herriko gune ezberdinetan Ikurriñaren presentzia bermatzea.
- Herritarrei egunerokotasunean ikurriñaren aldeko jarrera erakustea,
- Herritarrei etxeetako balkoi eta leihoetan Ikurriña jartzeko deialdia egitea.
- Eta azkenik, gurea Ikurriña dela aldarrikatzeko, Ikurriñari ekitaldi bat burutzea."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozioaren aurka bozkatuko duela. gaineratzen du mozio honek bi sinboloren arteko konfrontazioa planteatzen duela eta ez zaiola iruditzen behar dena hori denik, zeren batzuek bi sinboloak jotzen dituzten bere. Esaten



du baita ere Lazkaon bizi direnen nazionalitate guztietako banderak jartzearena Espainia-ko bandera ezkutarazteko dela eta ez zaiola ondo iruditzen.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du ez dutela mozioa onartuko eta abstenitu egingo direla. Gaineratzen du 2007an bandera jartzeko PPK aurkeztutako mozio baten aurrean, jendearen sentimendua ez zela eta ez jartzea erabaki zela. Esaten du baita ere ikurrinari ekitaldia egitearena bandera espainola jarri ala jarri ez erabakia tapatzeko egiten den zerbait dela, eta historia piska bat egin nahi duela eta ezker abertzaleak gai honen aurrean PNV espainola edo PNV vendido bezalakoak esateko ez duela inolako arazorik izan eta horrek min egin duela. Esaten du baita ere aurreko legegintzaldian Gipuzkoako Foru Aldundian Espainiako bandera jarri zenean, eta honek protesta gisa plaka bat jartzea erabaki zuenean, ezker abertzaleak ekimen huts eta faltso bat zela esan zuela, eta guzti hauen ondoren orain hau planteatzen dutela. Azkenik, esaten du, ikurriñaren alde beti egingo dutela baina beste era bateko ekintzak nahi dituztela.

Mendia zinegotziak (Bildu) esaten du Espainiako bandera jartzeko aginduaren eta nolabait inposaketaren aurrean, legea betetzea izango dela baina intentzionalidade garbia duela, ez delako ikurriña jartzeko edo Lazkaoko bandera jartzeko agintzen, eta badakitela Espainiako bandera jartzeak herrian konfrontazioa sortzen duela eta horregatik aurkeztu dutela mozio hau. Eta esaten du baita ere mozio honekin herritarrak batuko dituen zerbait planteatzea izan dela helburua, Lazkaon bizi diren guztiek hartzen dituzten nazionalitate guztietako banderak jartzea proposatuz. Eta esaten du baita ere ikurrinaren aldeko ekitaldia egitearena lehen aipatutako espainiako bandera jartzearen konfrontazio horri aurre egiteko planteatzen dela.

Alkateak (Bildu) esaten du ikurrina izan litekela herri honetako aniztasun guztiaren txapela izateko aukera duen ikurra eta elkarriketa eta elkarbizitzaren oinarria izan litekela ikurriña.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (Bildu), aurkako botu 1 (PSE-EE) eta 4 abstentzior (EAJ) mozioa onartzea erabakitzen du.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta bederatzirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



A handwritten signature in blue ink, written over the seal. The signature is stylized and appears to be the name of the Mayor or the official responsible for the document.